

ELKAR EZAGUTZEN**Lorenzoren lapikoa**

Jarduera honetan bideo bat ikustea proposatzen da. Lorenzo bestelako haurra da. Gaitasunak ditu, baina bestelakoak. Eta bestelakotasun horiek zailtasunak sortzen dizkiote taldean.

Bideo honek aukera ematen du horren inguruan hausnarketa egiteko; azken batean, denak gara desberdinak eta denak gara berdinak, pertsonak gara eta errespetua merezi dugu.

Bideoa lortzeko helbidea:

<https://www.youtube.com/watch?v=cngZcAzqhnI>



Bideoa ikusi, eta elkarrizketa sortzeko, horrelako galderak egin ditzakegu:

- ✓ Zer gertatzen zaio Lorenzori?
- ✓ Lorenzori gertatzen zaiona, beste edonori gertatzen zaio?
- ✓ Zer? Nola? Noiz?
- ✓ Gertatzen zaiona soilik da txarra?
- ✓ Ba al daki gauzak egiten?
- ✓ Laguntzarik eman al dakioke?
- ✓ Nola?
- ✓ ...

Lorenzoren buruntzalia

Helburua izango da konturatzea denak desberdinak gara eta gaitasun desberdinak ditugula, eta denon artean lor daitekeela zailtasun gehiago dutenak integratuak egotea, eta hobeto sentitzea guztion laguntzarekin taldean integratuak sentitzen direlako.